



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2021EKO URRIAREN 26AN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2021/10/13.

Batzarkideek 2021eko urriaren 13ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- LASARTE-ORIAKO UDALARI, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-108 (ATSOBAKAR) EREMUKO HEU 108.4 ETA HEU 108.5 EXEKUZIO UNITATEETAN KIROL-INSTALAZIOAK ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zk.: HZ.04/2020-0408

Lasarte-Oriako Udalak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetan kirol-instalazioak eraikitzekeo baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	2.848.374,06 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 26.199,06 €
	Fidantza (%120): 31.438,87 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal aparejadoreak, Ariadne Etxetxikia Barbero andereak, 2021ko martxoaren 30ean honako txostena eman du:

2021-014

OBRA HANDIAK



Usurbilgo Udala

ZERBITZUEN TXOSTENA ATSOBAKAR

KOKAPENA: Atsobakar kirol gunea Usurbil.
ESKATZAILEA: SESTRA INGENIERIA
ORDEZKARIA: Estitxu Aramburu
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2020-0408

SESTRA INGENIERIAK eskatu zuen ATSOBAKAR KIROL GUNEA egikaritzeko obra baimena eta eskatu zitzaion zerbitzuetako sareen kokapen eta ezaugarriak.

2021eko Martxoak 25ean plano bat aurkeztu dute non honako ezaugarriak azaltzen diren:

- Ur hornidura Ø 100eko hodiaren bidez egingo dute.
- Euri urak Ø 300eko hodiaren bidez egingo dute eta %2ko maldarekin.
- Ur zikinak aldiz, Ø 300eko hodiaren bidez egingo dute eta %2ko maldarekin baita.

Konexio guztiak, nahiz eta eraikuntza Usurbilen egon, Lasarte Oriako Udalako sareekin izango dira.

Beraz, EGOKIA da eskatzen zen Urbanizazioaren txostena.

Usurbilen, 2021eko martxoaren 30ean
Zerbitzu eta Mantenua Saileko burua

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua eta dokumentazio gehigarria aztertu ostean, hirigintza teknikariak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2021eko urriaren 8an honako txostena eman zuen hitzez hitz:

BULEGO TEKNIKOA Udal Teknikariak Alkate andreari **OBRA HAUNDIAK**

A-108 ATSOBAKAR EREMUKO HEU 108.4 ETA HEU 108.5 EREMUAN KIROL INSTALAZIOAK ERAIKITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUAREN DOKUMENTAZIO GEHIGARRIARI TXOSTENA

KOKAPENA: A-108 ATSOBAKAR eremua, HEU 108.4. eta HEU 108.5. exekuzio unitateak, Usurbil.
ESKAERA DATA: 2021ko maiatzaren 12an.
OINARRIZKO PROIEKTUAREN PEM: 2.848.374,06euro.
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 26.199,06euro **Fidantza (%120): 31.438,87 euro**
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2020-0408

AURREKARIAK

- 2021eko otsailaren 18an Lasarte.Oriako Alkateak A.-108 ATSOBAKAR



Usurbilgo Udala

eremuan HEU 108.4. eta HEU 108.5. exekuzio unitateetan kirol instalazioak eraikitzeko Oinarrizko Proiektua aurkeztu du, kopia bat paperean eta bestea cd-an.

- 2021eko martxoaren 12an interesatuak dokumentua teknikari gaituak izenpetua (cd-an) eta teknikari gaituaren aitopena aurkeztu ditu.
- 2021eko martxoaren 30ean Zerbitzuetako buruak ALDEKO txostena eman du azpiegiturei dagokionean.
- 2021eko apirilaren 7an Udal arkitektoak txostena eman zuen bete beharreko baldintzak zehaztuz.
- 2021eko maiatzaren 12an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.
- 2021eko uztailaren 12an udal arkitektoaren txostena aholkulari juridikoari txostena eskatuz
- 2021eko irailaren 6an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du
- 2021eko urriaren 30ean aholkulari juridikoaren txostena
- 2021eko urriaren 7an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du

TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, Lasarte-Oriako Alkateak A-108 ATSOBAKAR eremuan HEU 108.4. eta HEU 108.5. exekuzio unitateetan kirol instalazioak eraikitzeko Oinarrizko Proiektuari dokumentazio gehigarria aurkeztu dio. Orain aurkeztu direnak dira: ...

Dokumentazioa aztertuta eta aurrekariak zein udal arkitektoaren azken txostenean esandakoak aintzat hartuta, honakoak esan daitezke:

- HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:

	Oinarrizko proiektua	A-108 ATSOBAKAR eremuan HEU 108.4. eta HEU 108.5. arauen aldaketa xehakaturia
Lursailaren azalera	21.829 m ²	BETETZEN DU*
Ekipamenduaren oin okupazioa	1.836,8 m ²	BETETZEN DU
profila	S+BS+I	BETETZEN DU (S+BS+I)
lerrokadurak	Justifikazioa aurkeztu da.	BETETZEN DU*
Eraikigarritasuna	S= 160 m ² (t)	BETETZEN DU



Usurbilgo Udala

(azalera eraikia)	BS= 324 m ² (t) I= 256 m ² (t) Guztira= 740 m ² (t)	
Altuera	Justifikatu da ez dela 9,00 metroko altuera gehiengoa gainditzen	BETETZEN DU

Oharra: Edonola, aurkezten den Exekuzio Proiektuan egiaztatu beharko dira.
*ikus ZUINKETA AKTA atala.

- **LURSAILEN TITULARITATE ALDAKETA/LAPENA:** Interesatuak egindako proposamenaren inguruan, aholkulari juridikoak honela dio bere txostenean:

(...)

5.- 2021eko maiatzaren 12an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen, eta bertan, besteren artean, honakoa esaten da:

“Lagapen-lurzoruen titulartasuna aldatzeari dagokionez, konpromiso hau aurkezten dugu:

Lagapena hilabeteko epean egitea, zuinketa-akta egiten denetik zenbatzen hasita, lagapenaren eskritura publikoak zehatz jaso ditzan laga beharreko lurzorua”.

(...)

kontuan hartuta Arau Subsidiarioen aldaketak kirol-ekipamenduko partzela bat berrantolatzen duela, jabetza publikokoa eta hirigintza-aprobetxamendurik gabekoa, ez dira onurak eta kargak banatzen. Ondorioz juridikoki ez da beharrezkoa birpartzelazio-proiektu bat idaztea Usurbilgo Udalari lurzoria lagatzeko.

*Beraz, **aldeko txostena** ematen zaio Lasarteko Udalak hartutako konpromisoari, eta emango den lizentzian honako baldintza hau ezarri beharko da:*

Usurbilgo Udalari lagatzeko lurzoria eskritura publiko bidez egingo da, hilabeteko epean, zuinketa-akta egiten denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi aurretik”.

- **ZUINKETA AKTA:** Interesatuak esaten duenaren arabera, aldaketa/ezberdintasunak egon litezke paperean jasotako azalaretatik bertan neurtutako azalera errealek. Beraz, beharrezkoa izango da azalera errealean zuinketa egitea baina ez Kirol Instalakuntzaren eta Udalaren lursailena bakarrik, baita Arauen Aldaketa xehakatuak eragiten zituen lursailena ere. Zuinketaren bitartez ezinbestean konprobatu eta egiaztatu beharko dena da, jatorrizko Hirigintza Fitxan Udalarena zen azalera, Arauen Aldaketa puntularen bidez ondoriozko diren partzeletan bihurtzen dena, ez dela inolaz ere murrizten. Hau da, **jatorrizko eta ondoriozko partzelen zuinketa zehatza egin beharko da azalera errealak konprobatzeko eta baita, aldaketaren ondorioz Udalari dagokion azalera, bertan neurtutako azalera errealak, ez duela murrizketarik jasan ziurtatzeko.** Hori dela eta, modu behin behinekoan ematen dira ontzat txosten honetan azalera horiek, bertan egiaztatu arte.



Usurbilgo Udala

- INGURUMENAREN GAINEN ERAGINA: *Usurbilgo Atsobakar eremuko A-108 UEU 108.4 eta UEU 108.5. partzelen eta beraien inguruko gune publikoen Antolamendu Xehatuaren Aldaketa-ren tramitazioan **Usurbilgo Udalak ohartarazitakoa oroitarazten da:***

“Aldaketa-espeditentea tramitatzeko prozeduran edo lanak gauzatzeko prozesuan ingurumenaren gaineko eragin esanguratsuren bat egiaztatzen bada, Usurbilgo Udalak Lasarte-Oriako Udalari eskatuko dio ingurumen-prozedura betetzea eta/edo beharrezko eta bidezko ikusten diren ingurumen-neurriak hartzea”.

- IRISGARRITASUNA: Justifikazioa aurkeztu den arren, Exekuzio Proiektuan berariaz aztertu eta justifikatu beharko da.
- EKT-REN BETEZEA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA: Justifikazioa aurkeztu da edonola, Exekuzio Proiektuan berariaz aztertu eta justifikatu beharko da. Hala, proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan gelditzen da, ezinbestekoa izanik hura betetzea.
- KIROL INSTALAKUNTZEN HOMOLOGAZIOA: Kirol instalakuntzen homologazioa jaso nahi bada, dagozkion NIDE arauak bete beharko direla ohartarazten da.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 26.199,06€-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (**31.438,87€**). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, oinarrizko proiektua eta haren dokumentazio gehigarriari **ALDEKO** txostena idazten zaio, ondorengo baldintzekin:

Obra hasi aurretik:

- Exekuzio Proiektua aurkeztu eta bere onespina jaso beharko da. Exekuzio proiektuak (eta obren egikaritzak) ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, indarrean dagoen plangintza dokumentua, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.).
- Udal aparejadorearekin zuinketa akta izenpetu beharko da.
- Usurbilgo Udalari lagatzeko lurzorua eskritura publiko bidez egingo da, hilabeteko epean, zuinketa-akta egiten denetik



Usurbilgo Udala

zenbatzen hasita, eta obrak hasi aurretik.

- Hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ordaindu beharko da.
- Obra epeak:
 - Obrak hasteko: 6 hilabete.
 - Obren egikaritzea. 1 urte.
 - Obrak geldituta egon litezkeen epea: 6 hilabete.

Usurbilen, 2021eko urriaren 8an
Hirigintza Teknikaria
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

TXOSTEN JURIDIKOA

Espedientea aztertu ostean, hirigintza teknikariak, udal aholkulari juridikoak, Araudi S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martínez andereak, 2021eko irailaren 30ean honako txostena eman zuen hitzez hitz:

ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-108 ATSOBAKAR EREMUAN USURBILGO UDALARI LURZORUA LAGATZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURARI BURUZ TXOSTEN JURIDIKOA

I.- AURREKARIAK

1.- 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A- 108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta 108.5 exekuzio unitateetako eta alboko espazio publikoaren antolamendu xehatuaren aldaketa behin betikoz onartu zen.

2.- Plangintza-dokumentu horretan, kirol-ekipamendu bat kokatzeko eremua antolatzea planteatzen zen. Berrantolaketa horrek Usurbilgo Udalaren titulartasuneko parke publikorako lurzatia birkokatzeari ekarri zuen. Ondorioz, Lasarteko Udalak Usurbilgo Udalari okupatutako azalera laga behar dio antolamendu berrian oinarrituta.

3.- 2021eko otsailaren 18an Lasarte-Oriako Alkateak A-108 ATSOBAKAR eremuan HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetan kirol instalazioak eraikitzeke oinarritzko proiektua aurkeztu zuen.

4.- 2021eko apirilaren 7an udal arkitektoak txostena eman zuen bete beharrezko baldintzak zehaztuz.

5.- 2021eko maiatzaren 12an interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen, eta bertan, besteren artean, honakoa esaten da:

“Lagapen-lurzoruen titulartasuna aldatzeari dagokionez, konpromiso hau aurkezten dugu:



Usurbilgo Udala

Lagapena hilabeteko epean egitea, zuinketa-akta egiten denetik zenbatzen hasita, lagapenaren eskritura publikoak zehatz jaso ditzan laga beharreko lurzorua.

6.- 2021eko maiatzaren 12an udal arkitektoak honako alderdi hauei buruzko txosten juridikoa eskatu du: *“txosten juridikoa eskatzen da, izan ere ez da aurrez birpartzelazioaren aldaketarik izapidetu eta beraz, jarraitu beharrezko izapidea zein den ziurtatu beharko da beti ere indarrean den legearen betetzea bermatuz.”.*

Eskatutakoa betez, txosten juridiko hau idazten da.

II. AZTERKETA JURIDIKOA

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulua honela definitzen du birpartzelazioa:

“Partzelaziotzat egikaritze-unitate bateko finkak multzokatzea joko da, beste zatiketa bat, planari doitutakoa, egite aldera. Eta horren ondorioz sortzen diren partzelak interesdunei esleituko zaizkie, bakoitzak dituen eskubideen heinean”.

Beraz, kontuan hartuta Arau Subsidiarioen aldaketak kirol- ekipamenduko partzela bat berrantolatzen duela, jabetza publikokoa eta hirigintza- aprobetxamendurik gabekoa, ez dira onurak eta kargak banatzen. Ondorioz juridikoki ez da beharrezkoa birpartzelazio-proiektu bat idaztea Usurbilgo Udalari lurzorua lagatzeko.

Beraz, **aldeko txostena** ematen zaio Lasarteko Udalak hartutako konpromisoari, eta emango den lizentzian honako baldintza hau ezarri beharko da:

Usurbilgo Udalari lagatzeko lurzorua eskritura publiko bidez egingo da, hilabeteko epean, zuinketa-akta egiten denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi aurretik”.

Donostian, 2021eko irailaren 30ean

Nekane Azarola Martínez. *Hirigintza Abokatua*
ARAUDI SLP

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrek honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Lasarte-Oriako Udalari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) Eremuko HEU 108.4 eta HEU 108.5 exekuzio unitateetan kirol-instalazioak eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:



Usurbilgo Udala

- SESTRA Ingeniería y Arquitectura, S.L. taldeko Jaime Carretero Sánchez arkitektoak 2017ko ekainean idatzitako Oinarrizko Proiektuari, 2021eko martxoan Lasarte-Oriako Udaleko bulego teknikoak idatzitako azpiegituren eranskinari, eta 2021eko maiatzean Lasarte-Oriako Udaleko bulego teknikoko J. Ibon Rosales Martín arkitektoak idatzitako eranskin gehigarriari, hala nola ondoren aurkeztutako plano gehigarrie egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- Obrak hasi aurretik, **Exekuzio Proiektua** aurkeztu eta bere onespina jaso beharko da. Exekuzio proiektuak (eta obren egikaritzak) ezinbestean indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du (AASSTB, indarrean dagoen plangintza dokumentua, CTE, RITE, Tentsio baxuko Reglamentua, e.a.).

Aurkeztutako dokumentazio gehigarri guztiak jaso beharko ditu.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 26.199,06 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (31.438,87 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

31.438,87 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2020-0408*” jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik**, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da udal aparejadorearekin. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- **Obrak hasi aurretik**, Usurbilgo Udalarari **lagatzeko lurzorua** eskritura publiko bidez egingo da, hilabeteko epean, zuinketa-akta egiten denetik zenbatzen hasita.
- Azpiegitura konexio guztiak, nahiz eta eraikuntza Usurbilen egon, Lasarte Oriako Udako sareekin izango dira.
- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da. Exekuzio Proiektuan aztertutako dira zehatzago EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.
- **68/2000 Sar-irten erraztasunari buruzko Dekretuak ezarritakoak bete**



Usurbilgo Udala

beharko dira.

- AASS-etako Egoitzazko Eraikuntzen Ordenantzak bete beharko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Obra baimenaren epeak:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:

- Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
- Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lurralde kontribuzioaren alta.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrairaduraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina



Usurbilgo Udala

aurkeztuko da.

- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTENENTZAKO EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA EMATEA.

Esp.zk.: KE 01/2021-0229

IKUSIRIK

Bouchra Darrhaissak, XI31498XX pasaporte-zenbakidunak, behar ekonomiko bereziak dituztenentzako dirulaguntza eskaera egin du (2021-3479 sarrera-zenbakiduna).

Eskaeran adierazi du 270 orduko A2A1 ikastaroa egingo duela Usurbilgo AEK Etumeta euskaltegian. Denera 491 € ordainduko du matrikula.

Usurbilgo Udalak 2021eko ekainaren 18an behar ekonomiko bereziak dituztenei euskara ikasteko dirulaguntzak aurreratzeko oinarriak argitaratu zituen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Oinarrietan jasotakoa beteta, interesatuak dagozkion agiriak aurkeztu dizkio Udalari: errolda-agiria; Gipuzkoako Foru Aldundiaren agiria, PFEZ ordaintzen ez duela dioena; Lanbideren agiria, administrazio-egoera dela eta lanerako baimenik ez duela jasotzen duena.

Halaber, ofizioz bizikidetza-agiria aztertu du Euskara Sailak, eta ikusi, ez daukala lehen mailako kidesunik dituen bizikideekin.

Ondorioz, dirulaguntza ematearen aldeko txostena idatzi du Euskara Saileko teknikariak.

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen



Usurbilgo Udala

- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO 2020/01/30)
- Behar ekonomiko bereziak dituztenentzako euskara ikasteko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2021/06/18)
- Euskara Saileko teknikariaren txostena

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Bouchra Darrhaissari euskara ikasteko dirulaguntza eskaera onetsi, eta, 491 €-ko dirulaguntza aurreratzea.

Bigarrena: Ordainketa aurrekontu-partida honetatik egitea: 1.4200.480.335.00.01 2021 (A 818/2021)

Hirugarrena: Interesdunari eta udal kontu-hartzaileari erabaki honen berri ematea.

4.- 2021EAN KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO HAINBAT DIRULAGUNTZEN 2. ZATIAREN ORDAINKETA.

1. ESPEDIENTEARI BURUZKO DATUAK

Espedienteak: Jexux Artze Kultur Elkarte (KE.01/2021-0086)
Orbeldi Dantza Taldea (KE.01/2021-0091)

2. IKUSIRIK

Kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak 2021ko apirilaren 7an argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021ko irailaren 7an egindako bilkuran onartu zituen behin betikoz 2021eko kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

Honako elkarte hauek euren ekintzak burutzeko emandako dirulaguntza zuritu dute: Jexux Artze Kultur Elkarteak eta Orbeldi Dantza Taldeak.

3. ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (GAO, 2020/01/30)
- Kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2021/04/07)
- Kontu-hartzailearen ziurtagiria
- Kultura Teknikariaren txostena



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordaintzekoa
Jexux Artze Kultur Elkarte	40,41,42	1.141,22 €
Orbeldi Dantza Taldea	51	78,62 €
	Guztira	1.219,84 €

Bigarrena: Kultura Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2021 (A-129).

Hirugarrena: Interesdunei akordioaren berri emango zaie.

Laugarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.